

## *Sasi-bertsoak...*



© Xabier Galarreta

*Bihar goizean omen da  
munduan azkena*

- Eramango zaitut orduan  
afaltzera.

Kontua ordaintzeaz ez dut  
arduratu behar.

Baina oker bazina

atera ezazu Visa

eta nire izenean egin topa:  
mundu aldrebes hau badoa!

*Gaur Donostian bi zakur  
ari ziran izketan*

- Ondo entenditzera

bata gipuzkeraz bestea bizkaieraz,  
gauza sakonak zituzten

pentsatzen elkarren artean

soilik eteten zituztenak

hezurrak horzkatzean.

Bata Milú ta bestea Lassie

a zelako barraskilo pare!

*Zazpi atso ikusi ditut  
goizean borrokan*

- Boxeolari piurakoa

hori zen nire andrea,

urrezko hortzak espero

dut ez galtzea liskarrean

noizbait ere nahi nituzke

jasotzea herentzia gisa,

akaso joango balitz

Deabruarekin batzera  
nik neuk hori bera  
egin aurretikan!

*Orain aingeru guztiak  
daude paradisuan*  
- Ni neu ere nauzue  
zozo horietako bat,  
txapelaren orde  
aureola jantzita  
inspirazio handiko  
arpa-jole trebea  
ziri ederra sartu diet  
sinetsarazita  
zintzo arraioa naizela  
ez iruzurle handi bat.  
Salduko diot baten bati  
egonalditxo bat Hawain!